

Izen gaiztoko mendi ederra DENT D'ESTIBERE MALE 3017 m

Mikel Goikoetxea



Argazkia: Amaia Ugarte



Argazkia: Mikel Goikoetxea

Goiko aldean.
Pic Long eta eskubira (txikia) Dent d'Estibère Male Tourrat lakuaren ingurutik

Ezker aldean.
Rabieteko aterpea elurrez tapatuta

LUZ-en gaude ogia erosten. Kotxez igotzerik ba ote dago? Bertatik ateratzen da Pierrefitte izeneko bailara.

Hasieran asfaltoa eta azkenean pista den bidea 1500 metrotara amaitzen da. Ingurua bordaz beterik dago eta iadanik lehen artaldeak igotzen hasiak dira.



Argazkia: Mikel Goikoetxea

Goiko aldean.


**Pierrefitteko haranaren ikuspegia,
Pierrefitteko txabolatik ikusita**

Eskiak 45 minutu eramán ondoren, txabola (lo egiteko aukera) baten ondoan janzten ditugu. Hemendik nahiko malda gogorrak igo ondoren Pierrefitteko lepoan gaude 2.466 metro. Hemen fokak kendu eta haseran oso aldapatsua denez kontuz jaisten gara. Erne ibili behar dugu ondoan dagoen Rabiet lepotik jaisten diren abalantxeekin, oso leku arriskutsua gerta daiteke.

Rabiet lakura (2.190 metro) iritsi gara (3 ordu ta 15 minutu kotxetik) eta han ustegabea! aterpea ia estalirik dago eta bakarrik tximinia ikusten da. Hala eta guztiz ere atsegina gerta daiteke bospasei lagunentzat.

Goizeko bostak, gaua. Gosaldu eta gorantz. Haranean aurrera goaz. Goizeko lehen errainuek Pie Longeko iparraldeko horman jotzen dute; benetan leku baketsu eta bakartia!

Tourrat lakura(2.620 m) igotzeko aldapa gogor xamarrek daude. Bertatik malda gogor batez mendiaren azpialdera iritsi gara. Eskiak kendu eta azkeneko 50 metroak arretaz egiten ditugu. Tontorrean gaude,



Eskuma aldean.


**Dent d'Estibère
Maleko tontor
hestua**

Beeko aldean.

**Tourratera
heltzen, atzean
Touron de
Néouvielle
ikusten delarik**



Argazkia: Mikel Goikoetxea



Argazkia: Amaia Ugarte

nahiko tontor txikia baina erraldoiez inguraturia (4 ordu aterpetik).

Lainotu da, jaitsi beharra dago. Aterpetik Pierrefitteko lepora berriro igotzea gogorra

egiten da. Hemendik jaitsiera polita kotxeraino.

Luz-en ari gara garagardo bat edaten, benetan bailara bakartia Pierrefittekoa.

DATU TEKNIKOAK

Garaia

1996-4-24

Taldea

AMAIA UGARTE, ANDONI LARZABAL, EDU ARANBURU, MIKEL GOIKOETXEA.

Arriskuak

Kontuz Rabiet inguruan gerta daitezkeen abalantxeekin.

RESUMEN

**DENT D'ESTIBÈRE MALE 3017 m
Un hermoso monte con un mal nombre**

ASCENSION de primavera en esquís a un tresmil del macizo Néouvielle-Pic Long. La víspera, tres horas largas para llegar desde Luz hasta la txabola del Lago Rabiet. ¡Cuidado, zona de avalanchas! Por la mañana, cuatro horas hasta la cumbre del Dent d'Estibère Male